

Ikasenpresa programaren IV enpresa azoka

2015/02/17

Eibarreko Unzaga karpak ekintzailez bete ziren 700 ikasle inguruk bertararatu zirelarik. Ikasle hauek Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lanbide Heziketako Zentroetatik zetozen eta guztira 135 enpresa txiki aurkeztu ziren.

Mondragon Goi Eskola Politeknikoak 50 ikaslerekin hartu zuen parte. Ikasle hauek 5 enpresa aurkeztu zituzten guztira, bakoitza euren titulazioekin lotuta zegoelarik.

- **PMT Automation:** Zerbitzu integratua eskaintzen dute, tartean egonik produktu eta instalazioen automatizazioa, horiek mantentzeko lanak eta automatizazioari buruzko aholkularitza, edo partikularrei automatak saltzea.
- **Dicascoop:** Helburua bizikleta batean irrati bat martxan jartzea da, dinamo baten bitartez. Horren bitartez, musika entzuteko aukera eskaintzen da. Horrela, bizikletaren erabilera bultzatzen da, kutsadura saihestuz eta ingurumena babestuz.
- **Resa:** Ebaketako plakatxo adimendunak diseinatu eta garatzea, doikuntzako mekanizazioarako. Plakatxoaren bereizgarria da denbora errealeko txip sistema bat duela integratuta eta, horri esker, bizi denbora jakin dezakegu, mantentze lanak eta aldaketak eraginkortasunez kudeatu ahal izateko.
- **Happy Smile:** Diseinu mekanikoko talde bat gara, titanioz fabrikatutako hortz inplanteen diseinua eta fabrikazioa garatzen duena. Gure bezeroak hortz klinikak dira.
- **Lagin:** Informatikako sistemen arloko behar eta arazoentzako erantzunak eskaintzen dituzte. Oinarrizko hardware eta softwarearen instalazio eta mantentze-lanetatik hasita web orrien garapeneraino.

